GERRA ZIBILA SRI LANKAN. Gobernuaren arabera, bederatzi tamil tigre eta bost militar hil ziren atzo, LTEE Tamil Eelam-eko Askapen Tigreak gerrillak Colombo hiriburuan egindako erasoan. Antza, gutxienez beste hiru zibil ere hil ziren ekintzaren ondorioz.



SENA VIDANAGAMA / AFP

HEGAZKINAK SUNTSITUTA. Gerrillari tamilek hamahiru hegazkin eta helikoptero suntsitu zituzten atzo, Colomboko aireportuan eta ondoko base militar baten kontra egin zuten erasoan. Ekintzak 350 milioi dolarreko galera eragingo duela esan du Gobernuak.



Tamilek Colomboko aireportuan eta base militar batean eginiko erasoaldian 18 lagun hil dira

Gerrillariek uharteko iparraldean dituzten posizioei eraso die Armadak, erantzun gisa

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Gutxienez 18 lagun hil ziren atzo goizaldean Sri Lankako Colombo hiriburuan, LTTE Tamil Eelam-eko Askatasun Tigreak gerrillak Bandaranaike nazioarteko aireportuan eta haren ondoko base militar batean egindako erasoan. Gobernuaren arabera, hildakoetatik bederatzi gerrillariak ziren eta bost militarrak. Gutxienez beste hiru zibilak ziren, antza. Gainera, tamil tigreek hamahiru hegazkin eta helikoptero suntsitu zituzten. Armadak gerrillariek uhartearen iparraldean dituzten posizioak bonbardatu zituen ordu batzuk geroago, erantzun gisa.

Tamilen aurkako borrokak hasi zireneko 14. urtemugarekin bat egin du erasoak. Aste honetan beteko da urtemuga, eta LTTEren atzoko ekintza gerrilla sortu zenez geroztiko ausartena izan da. Lehendik ere jomugatzat zuten tamil tigreek aireportua; 1986an 16 lagun hil ziren hegazkin bat eztandarazi zutenean. Atzoko erasoak 350 milioi dolarreko galera eragin zuen, Gobernuak dioenez, eta hegaldi guztiak bertan behera uztera behartu zuen.

Sri Lankako Gobernuaren eta gerrillari tamilen arteko bake elkarrizketak etenaldian izan dira azken hilabeteetan, Colombok ez duelako onartu nahi izan debekua kentzea LTTEri bake elkarrizketa zuzenak hasi aurretik. Norvegiako Gobernua bitartekari lanetan ibili da.

Chandrika Kumaratunga Sri Lankako presidenteak erreferendum bat iragarri du datorren hilerako, Konstituzioa aldatu eta autonomia zabalagoa emateari buruz. Baina ez dirudi tamil tigreak aseko dituenik.

Independentzia

Gerrillariek estatu independente bat sortu nahi dute Sri Lankako ipar eta mendebaldean, bertan bizi diren 3,2 milioi tamilentzat. Sri Lankan biztanleriaren gehiengo diren singaldarrek baztertzen dituztela salatzen dute tamilek eta horren aurka borrokatu dira.

Duela 18 urteko uztailaren hasieran hasi zuten independentziarako gerra tamilek, segada batean 13 soldadu hil zituztenean. Erasoak erantzun gogorra izan zuen uhartearen hegoaldean, eta 3.000 tamil hil zituzten. Singaldar askoren ustez Indiak sustatu zuen gerra, bere biztanle tamilak lasai mantentzeko. New Delhik 1987an bake indar bat bidali zuenean, hegoaldeko singaldarrek gogor erantzun eta bigarren gerra zibila piztu zen.

GERRA

1948. Zeilanek independentzia lortu zuen Erresuma Batuarekiko.

1976. LTTE sortu zen.

1983. Tamilen aurkako borrokek gerra zibila eragin zuten.

1987. Indiako lehen ministro Rajiv Gandhik bake indar bat bidali zuen Sri Lankara. Mila lagun baino gehiago hil ziren.

1990. Indiako tropak erretiratu egin ziren.

1996. Gobernuak Jaffna penintsula berreskuratu zuen.



SENA VIDANAGAMA / AFP

EKINTZAILEA HILDA. Sri Lankako Armadako kideak atzo, atentatu suizidan hil zen tamil tigre bati begira. Bederatzi gerrillari, bost militar eta gutxienez hiru zibil hil ziren, antza, gerrillariek egindako erasoan.